



Ekainaren 13an eman da argitara lehen txostena Espainiako 48 unibertsitate publikoetako irakasle eta ikertzaileen artean dagoen [generoko soldata-arrakalari buruz](#). Batez beste, **2021ean, % 12,7ko aldea dago gizonen eta emakumeen urteko ordainsari gordinen eta gizonetzkoen soldataren artean**. Unibertsitate Ministerioak, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak (CRUE) eta Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) bultzatu dute ikerketa, eta UPV/EHUko hiru irakaslek eta NUPeko irakasle batek egin dute.

Azterketak generoko soldata-arrakala aurkezten du, lanbide-kategoria, adin, lanaldi-mota eta beste faktore batzuen arabera; eta erakusten du irakaskuntza-adar guztietan daudela soldata-diskriminazioaren zeharkako mekanismoak, irakasle eta ikertzaileen feminizazio-maila edozein dela ere. Dena dela, alde nabarmenak jaso dira: soldata-arrakala handiagoa da Osasun Zientzietan (% 18), tartekoa da Zientzietan (% 14) eta Arte eta Humanitateetan (% 12,2), eta aski txikia Ingeniaritza eta Arkitekturan (% 2,4) eta Gizarte eta Lege Zientzietan (% 2).

Azterketaren emaitza nagusietako bat da **soldata-arrakalaren jatorria, gehienbat, ordainsari-osagarrietan dagoela**. Izan ere, batez beste, generoko soldata-arrakala % 1,8koa da oinarrizko soldatan (% -2,6 UPV/EHU), eta soldata-osagarrietan, berriz, % 19,1koa da (% 23,4 UPV/EHU), soldata osoan dagoen % 12,7 baino nabarmen handiagoa (% 9,4 UPV/EHU).

Hori bereziki garrantzitsua da **seiurtekoetan, zeinak ekoizpen zientifikoari eta lanbide-kategoria handienei lotutako produktibitate-osagarriak baitira**. Izan ere, unibertsitatean emandako denborarekin eta ordainketarekin zerikusia izateaz gain, atak irekitzen dituzte ikerkuntzako merituetatik beste sari batzuk jasotzeko, eta,aldi berean, irakaskuntza-lanetatik askatzen dute. Horregatik, funtsezko osagarri hauetan desberdintasun esanguratsu bat egoteak desberdintasun sakonak ekar ditzake ondorengo ibilbide profesionalean. Eta azterketako datuek erakusten dutenez, Espainiako unibertsitate publiko guztietan **seiurtekoetan generoko soldata-arrakala % 28,6koa da, eta ikerketa-proiektuetan, berriz, % 47,3koa (UPV/EHU % 35,6 eta % 42,4koa, hurrenez hurren)**.

Emaitza horiek azaltzeko, azterketaren arabera, segregazio horizontala –Osasun Zientzietan eta Arte eta Humanitateetan emakumeak gehiengoa dira, Ingeniaritza eta Arkitekturan laurden pasatxo–, segregazio bertikala –katedren % 73 gizonek betetzen dituzte– eta kristalezko sabaia –postu gorenetan emakume gutxi– aipatzeaz gain, Espainiako unibertsitate publikoetan dagoen **kristalezko labirintoa** hartu behar da kontuan. **Beraz, gutxi gorabehera ikusezinak diren oztopoen sistema oso bat dago, eta horrek irakaskuntza- eta ikerketa-lana geldiarazten die emakumeei ibilbide akademikoan**. Bestalde, ordaindutako enpleguan dauden oztopo zehatz horiei gaineratu behar zaie emakumeek gizonen baino denbora gehiago ematen dutela etxeko lanetan eta ordaindu gabeko zainketan, eta, ondorioz, denbora eta prestasun gutxiago dituztela irakaskuntzan eta ikerketan aritzeko.

Horregatik, emakumeen lanbide-ibilbidean dauden zeharkako diskriminazio-mekanismoak ezabatu, eta estereotipo sozialei eta zainketan dagoen gizonen erantzunkidetasunik ezari aurre egin nahian, azterketak gomendio zehatz batzuk aipatzen ditu, Espainiako unibertsitate publikoetan genero-joeren aurka borrokatze aldera.

## Generoko soldata-arrakala unibertsitate publikoan

Azken batean, beste lan-, gizarte- eta politika-arlo batzuetan bezala, **gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasuna unibertsitatean ere badago, neurtu daiteke eta errepikatu egiten da**, generoko soldata-arrakalari buruzko txosten honetako datuek erakusten dutenez.

Hortaz, **STEILAS**ek dei egiten dio UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzari apustu irmoa egin dezan gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatuko duten politika feministen alde. Gero eta ugariagoak diren genero-desberdintasunaren korrante ukatzaile eta erreakzionarioen aurrean, UPV/EHUK eredugarria izan behar du. Beraz, egoera-diagnostiko xehatuak sustatu behar ditu, eta eta ondo identifikatu behar dira irakaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan genero-joeratik lerratzeko modua ematen duten mekanismoak.

Familia-zaintzen ondorioz emakumeen karrera akademikoak motelago egiten badu aurrera, premiazkoa da kontziliazio-neurriak ezartzea, gizonek ere parte har dezaten etxeko lanetan eta zaintza-lanetan. Hala ere, **2022/23 ikasturte honetan, berdintasunerako sektore arteko bilera bakarra egin da, eta ez du emaitza handirik izan. Izan ere, UPV/EHUren kontziliazio-gidak ez du jasotzen sindikatuek proposatutako neurri ugari, nahiz eta horiek nabarmen erraztu familia, lana eta norberaren arteko kontziliazioa**. Aukera galdu da abangoardia izateko, UPV/EHUko langileen lan-, ikasketa- eta zaintza-denborak egokituko dituzten neurrietan.

Gainera, emakumeek joera badute beren burua baztertzeko ikerketa-seiurtekoak lortzean eta kudeaketa-karguak eskuratzean, ondo jakin behar da zein diren hori azaltzen duten funtzionamendu-arau esplizituak eta ezkuak. Lan handia dago egiteko, eta UPV/EHUK baliabide material eta giza baliabide gehiago bideratu behar ditu zeregin horretarako; bestela, aurrerapenak –gertatzen ari den bezala– ez dira aski izango eta kontserbadoreak izango dira.

Azkenik, adierazi nahi dugu oraindik ez zaiela aplikatu generoko soldata-arrakalaren azterketa administrazio eta zerbitzuetako langileei. Laburbilduz, bada garaia egoera iraultzeko eta Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren hitzaurrean bertan islatzen dena aplikatzeko:

“Bidezko unibertsitatea eraikitzeke asmoa dago lege osoaren edukian. Hala, betekizunak ezartzen dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan (...), hala nola berdintasun-planak, eta soldata-arrakala eta jazarpen-mota oro ezabatzea”.

**STEILAS**en ustez, UPV/EHUren IV. Berdintasun Plana abian jarri behar da. Gure iritziz, jazarpen eta indarkeria matxistaren arloan, UPV/EHUK protokolo aitzindari bat du, eta, hori osorik aplikatu ahal izateko, pertsona gehiago behar dira lanean berdintasun-zuzendaritzan.